

Goi

Goierritarra aldizkaria

386. zenbakia 2010eko irailak 3



**EUSKAL
JAIK
ORDIZIAN**



GOIZANE

Baserria gizartera zabalduz

1976tik
betiko konfiantza
eta profesionaltasuna

J. M. Barandiaran 1 ORDIZIA
Tel.: 943 16 00 51 - 615 78 79 08

nick's
ENGLISH CENTRE

Kurtso hasiera

Irailak 20

Izen ematea

Irailaren 6tik aurrera
Arratsaldeko 6etatik 8etara



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez. Ornaburu Dra.

(Medikuntza estetikoan masterra)

A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea


BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU
ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizenetasuna, zelulitisa, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04



GOIERRIKO **hitza** info

Egin harpidedun

GOIERRITARRA ☐
urtean 27 euro

HITZA ☐
urtean 67 euro

GOIERRITARRA+HITZA ☐
urtean 72 euro

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	

902-82 02 01 (Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

harpidetza@hitza.info

Urbialde plaza, 7 behea • Beasain



Inazio Usarralde

Hara, Joxepa, ez zekinat gordin samar ez ote naizen arituko baina bazeramakinat denboralditxo bat gai honi arreta jarrita eta ondorioa garbia dun: Lazkaon, euskal hiztun epelak ditun/gaitun **insolidarioenak** –klase honetatik ugari zagon!– euskararen unibertsoa hurbiltzeko ahalegina egin duten –edo oraintxe egiten ari diren– beste lazkaotarrekin. Eta horrek nire onetik ateratzen nain. Beste herrietan ez zekinat nola izango den kontu hau baina gure herrian hala dun.


Aizan, Lazkaon, pertsona batek zenbat urte egin behar dizkin euskara ikasten geuk hura euskalduntzat har dezagun eta hari euskaraz egiten hasteko? Oraintxe bertan begi

Lazkaon, euskal hiztun epelak ditun/gaitun insolidarioenak euskararen unibertsoa

hurbiltzeko ahalegina egin dutenekin.

aurrean zeukanat eszena, eta ez behin edo bitan, baizik eta sarri-sarri ikusitakoa: euskara ikasteko ahalegina egin duen edo egiten ari den lagun bati, bere betiko koadrilan dabilenean tabernan edo haurren zain kiroldegian itxaron behar duenean, nola zuzenean espainolez egiten zieten euskaraz dakiten lazkaotarrek. Zer gertatzen dun hor? Zergatik ez dinagu lehen unetik eskua haiengana luzatu eta “goazen elkarrekin” esaten euskara menderatzeko bide malkartsu horretan? Hori ere haien esku utzi behar al dinagu?

Eta hi, are su gehiago ematen zidan euskara ikasten urteetan aritu eta hari, oraindik, nola Lazkaoko beti-betiko euskaldun epelek egiten dioten espainolez ikusteak! Zer nahi dun esatea... tristea iruditzen zaidan!



Joxepa Madariaga

Gordin eta gogor jardutea ere beharrezkoa diagu, Iñaxio, eta hire gogortasunari, agian, gogorrango erantzungo zioat. Gaizto papera hartu eta hiri kontra egiten saiatu behar diat gaurkoan, hire etsai, hire kontrario. Izan ere, biok iritzi bereko agertzeak ez dik zentzu handirik “1 eta 1” saio honetan. Kanean modu askotara pentsatzen duen jendea zagok eta gutxienez bi eratako iritziak kaleratu beharko dizkiagu, ezta?

Euskararen eta euskal kulturaren unibertsoan bizi garen eta horixe indartu eta gizendu nahi dugunoi zenbat harri erortzen zaizkigun/botatzen dizkiguten gainera! Zerbaitek huts egiten badu, puntu beltzik agertzen bada inon... ta!, errua gurea duk beti, euskaldunona, euskaldun zaharrona, euskaltzaleona, “bertakoena”. Ez zaidak hori inolaz ere zuzena iruditzen.

Euskaraz dakitenek euskaraz egiten ez badute, horren arduradun eta errudunak euskaldunak, dakigunak eta

Errua gurea duk beti, euskaldunona, euskaldun zaharrona, euskaltzaleona.

Ez zaidak hori inolaz ere zuzena iruditzen.

euskaraz bizi nahi dugunak al gara?, gu al gara pertsona utzi eta arduragabeak? EZ.

Oraindik gehiago lagundu behar al diegu ahalegina egin duten, edota egiten ari diren euskaldun berriei, euskarara ingurutzen? BAI.

Euskaldun “epelek” –ez bero, ez hotzek; euskaraz jakin arren erdaraz egiten dutenek; euskaraz dakitenekin erdaraz bizi direnek– egiten diguten kaltea ikaragarria duk. Erdaraz aritzen diren horiei elkartasun eta errespetu gehiegi agertzen ote diegun pentsatzen diat askotan.

Euskara ikasten urteetan aritu denari, zorionak! Gustu handiz lagunduko zioat eta egingo zioat euskaraz, berak hartarako bidea ematen badit, noski. Dudarik ez, baina... nori berea eta nork berea.

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierriar aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 757
Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Denetik (XXXIX)

Maizpide euskaltegia

“Delako” gora eta behera

Izenburukoa hitz ezezagun samarrak edota erdaratik hartuak euskarazko testuinguruan kokatzeko erabilia izan da maiz. Ez dugu gure txoko honetara “gaizki” dagoelako ekarri, aukeran gehiegitxo erabiltzen dugulako baizik. Eta “gehiegitxo” diogu... askotan beste hainbat modutara esatea badaukagulako. Nola? Bada, honela:

- a) Hitz arrotzaren adieraren azalpena eginez!
- b) Deritzan, izeneko... bezalakoak erabiliz!
- ✓ *N-VA delako alderdi independentistak irabazi zituen hauteskundeak Flandrian. (egokia)*
- ✓ *Partido Revolucionario Democrático delakoak irabazi ditu hauteskundeak Mexikoko hiriburuan. (egokia)*
- ✓ *N-VA deritzan alderdi independentistak irabazi zituen hauteskundeak Flandrian. (egokia)*
- ✓ *N-VA izeneko alderdi independentistak irabazi zituen hauteskundeak Flandrian. (egokia)*
- ✓ *N-VA alderdi independentistak irabazi zituen hauteskundeak Flandrian. (egokia)*
- ✓ *Alderdi Iraultzaile Demokratikoak (PRD) irabazi ditu hauteskundeak Mexikoko hiriburuan. (egokia)*

Aldiaren arabera aldatuko da. Beraz, ez da derrigorrean orainaldian agertuko. Erreparatu, bestela, adibideari:

- ✓ *Guru zelako batekin ibili ziren puska batean The Beatles taldeko lau mutilak 60ko hamarkadan. (egokia)*

Pluralean ere ager liteke:

- ✓ *Leggins direlako galtza estuak ditu gustuko gure Iratik. (egokia)*
- ✓ *Leggins-ak ditu gustuko gure Iratik. (egokia)*

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. “Ley del vascuence” izenekoak makina bat buruhauste eragin dio nafar askori!
2. Volksunie izan zen egungo N-VA alderdi independentistaren lehen izena!
3. Afaria bederatzi t’erdietan egitekotan geratu ziren

OHARRA: denak zuzenak, azkena izan ezik (bederatzi eta erdietan behar du).

Noiz erabili behar dugu “t’erdi”?

Euskaltzaindiak aspalditxo erabaki zuen agurretan eta antzekoetan enfasia emateko erabiliko genuela, helburua zenbatzea ez denean:

- ✓ *Euskal Herriko selekzioaren jarraitzaile zintzook, agur t’erdi! (egokia)*
- ✓ *Euskal Herriko selekzioaren jarraitzaile zintzook, agur eta obore! (egokia)*

Orduak emateko edo zenbatzekoak direnak adierazteko, berriz, “eta erdiak” erabiliko dugu (eta ez “t’erdi”):

- ✓ *Bederatzi eta erdiak ziren ohetik altxatu zirenerako. (egokia)*
- ✓ *Zortzi eta erdi atera dut ikasgai horretan! (egokia)*
- ✓ *8’5 (zortzi koma bost) atera dut ikasgai horretan! (egokia)*

Kaben zotz, Koikili,
zortzi eta erdietarako
isiltzen ez bahaiz,
amari esango zioat!



Koikili izeneko mutilaren birikek ez dutela, gero, okerragorik!

- × Jabekideen komunitatea osatzea
- × Komunitateen kontabilitatea
- × Akten idazketa
- × Aurrekontuen eskaera
- × Aholkularitza legala
- × e.a.

Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA



Goierrit Hartxo

Goierriko haurren aldizkaria 29. zenbakia 2010eko iraila



Pedro Garcia
Everest gailurretik bueltan



Pedro Garcia ordiziarra

Munduko mendirik handienaren gailurrean

2010eko maiatzaren 24 ez du sekula ahaztuko Pedro Garciak. Munduko mendirik altuenera, Everestera igo baitzen. Goizeko 10etan iritsi ziren Pedro Garcia ordiziarra eta Alfredo Garcia errioxarra. 40 minutu egin zituzten gailurrean. Goierrihartxok, ohi bezala, grabagailua eta argazki makina hartu eta, munduko mendirik altuenean dagoela amestu du. Everestek 8.848 metro ditu. Himalaya mendikatean dago, Nepal eta Tibet artean.

Azkeneko 100 metroak, gailurra begibistan zuela, negarrez egin omen zituen. Emozio asko elkartu zitzaizkion: poza, tristura, ametsa betetzen ikustea...

Hilberria zen lagun baten errautsak eraman zituen Everestera eta hantxe zabaldu zituen.

Sasoitxu igo zuen Everest Pedro Garciak. Aurretik egindako entrenamendu gogorrek balio izan zuten. Ordiziarrek adierazi dioenez, gimnasioan, bizikletan



Maiatzaren 24an, goizeko 10etan, bere ametsa bete zuen Pedro Garciak: Everesteko, munduko mendiko handieneko gailurrera iritsi zen.

eta mendian ordu asko pasatu ditu. Txindokin gora eta behera, joan-etorri ugari egin ditu.

Jaitsiera gogorra

Mendia igo bakarrik ez da egiten. Jaitsi ere, kontuz egin behar da. Pedro Garciak ondo zekien hori, askotan, jaitsiera gogorragoa izaten dela, nekea ere handiagoa izaten baita. Esperientzia gogorra bizi izan zuen ordiziarrek, inoiz ahaztuko ez duena. “Jaisten ere oso ondo hasi ginen, eguraldi onarekin. Bat-batean, nire lagunak, Alfredok, ezin zuen. Ez zegoen oso ondo. Eguraldia txartu egin zen. Alfredok ezin zuen ezer ere egin eta nik lagundu behar izan nion. Eskularruekin ezin da ezer egin. Beraz, eskularruak kendu beharra neuzkan eta elurra sartu zen eskularruetan. Oxigenorik gabe ere gelditu ginen. Jaitsieran, dena gaizki ateratzen hasi zen. Eskerrik ondo gauden. Fisikoki ondo egotea garrantzitsua bada ere, garrantzitsuena burua ondo izatea da. Burugogorra izatea alegia”, dio ordiziarrek.

Min handia pasatu zuen Oinarrizko Kanpamentura jaitsi zenean. Negar egiten zuen minez. Izozketen ondorioz, eskui-neko eskuko hiru hatz punta eta ezkerreko eskuko hatz baten punta moztu behar izan dizkiote. Sendaketa oso gogorra izan da. Dagoeneko eskuko bendak kenduta dauzka eta poliki-poliki mugimendua eta indarra berreskuratzen ari da. Arrozegindako pilotarekin egiten ditu soinketak.

Baina esaera zaharrak dioen bezala, gustuko lekuan aldaparik ez. “Everest igo eta beste mendi batean pentsatzen hasi ginen. Gurea droga bat bezala da”.



Munduko mendirik handiena igo duzu.

Nire ametsa bete dut. Izugarrizko mendi puska da Everest. Dena den, mendia handia ala txikia izan, niri gozatzea gustatzen zait. Lagunekin joan eta gozatzea, hori da niretzat handiena.

Zer sentitzen da Everest puntan?

Sentipen asko. Neskagunari deitu nion...

Oxigenoak asko pisatzen al du?

Bi botila eraman genituen. Botila bakoitzak 5na kilo pisatzen ditu. 10 kilo dira eta altuera horretan asko nabaritzen da.

Zer jaten duzue?

Barrita energetikoak, frutu lehorrak, txokolatea... edateko asko: tang, zopak... Oinarrizko kanpamentuko jana: arroza, patatak eta dilistak, haragi pixka batekin, dena nahastuta. Goxoa da baina egunero jateko. Dena den, guk 200 kilo jan eraman genuen. Hestebete asko eraman genuen, errioxarrari jana ematen diote eta. Babarrunak ere eraman zituen eta odolkiarekin prestatzen genituen. Gosaria, asko: zerealak, tortila, txorixoa, arrautzak, esnea, kafea, gailetak...

Nik jateko gogorik ez dut izaten, edan bai, asko egiten dut. Garrantzitsua da ur asko edatea, ez deshidratatzeko. Han ez da izerdizten, baina gorputzak asko gastatzen du. Ur asko edan behar da.

Ura zuek egiten al zenuten?

Bai, elurra urtuta. Lan handia da.

Txikitan joaten al zinen mendira?

Errugbian jokatzeko nuen baina errugbia utzi eta lagun batekin Izaba aldera joaten hasi nintzen eta hantxe sartu zitzaidan harra. Pirinioetatik Andeetara, Alpeetara.. 20 bat espedizio egin ditut. Pirinioetan ere oso gustura ibiltzen naiz.


Eta hemen inguruko mendietan?

Txikitan Txindokirekin liluratu gelditzen nintzen amarekin baserrira joaten nintzenean. Aizkorri elurtuta ikusten nuenean ere bai. Izugarria iruditzen zitzaion. Txindokira, osaba-izebekin igo nintzen txikitan eta igo nintzenean lagun guztiei kontatzen nien pozik.



Zein da itzal egokia?

Aizkolariak
ondoan 7 itzal
baditu ere
bakarra da
berari
dagokiona.



ZER IRAKURRI?

*Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteko
Irakurketa Mintegia*



Hitz eta zaunka

Autorea: Joxan Ormazabal
Ilustratzailea: Jose Belmonte
Argitaletxea: Elkar
Orrialde kopurua: 28

Oso tirolaria den ehiztari bat eta oso zaunkaria den zakur bat berean ari dira, danba eta zaunka, inguruko animalia guztiak izutzen. Halako batean, ordea, zakurrak basurde baten aurrean ikusi du bere burua. Ez edonolako basurde bat, baizik eta basurde handi handi bat, munstro baten antzekoa. Hura sustoa! Hura gauza harrigarria! Ez zaio ba zakurrari zaunka egitea ahaztu sustoarekin, ez da hasi ba hizketan pertsonak bezala!


Xia Tenzinen bidaia miresgarria

Autorea: Patxi Zubizarreta
Ilustratzailea: Jacobo Muñiz
Argitaletxea: Ibaizabal
Orrialde kopurua: 93


Xia Tentzin, zain dago noiz tximeleten euria egingo, itsasorainoko bidaia abiatzeko. Xia Tenzin, lehengusuaren ezkontzan gonbidatu guztientzako lapikoa jan zuena, zain dago, itsasorantz abiatu zen aitaren bila joateko. Abiatuko da -arrebak koloretako kutuna jarriko dio lepoan-, Ibai Horia jarraituz, "ttuku-ttuku, besoak dilindan eta gorputza herrestan". Eta herri bakoitzeko ikaspen bat, dar-dar bat, gordeko du bihotzean..

Aurkitu bidea

Zein bide jarraitu behar du bolak birlak jotzeko?



Zein irudi da A-ren berdina?





Goizane: lehen sektorea bultzatzea eta gizartzeratzea helburu duen gunea

Kixkurgunen Goierriko nekazarien produktuak
eros eta dastatu daitezke

Nekazaritza sektoretik sortzen diren proiektuei lekua ematea eta alde horretatik zegoen azpiegutura beharrari erantzutearekin batera, elkarlana bultzatu nahi du Goizanak nekazaritzako sektore ezberdinen artean eta baita beste sektore ekonomiko batzuekin ere. Goizaneren baitan, Kixkurgune denda-taberna ere badago. Goierriko nekazarien produktuen salmenta zuzena egiteko erakusleihoa da Kixkurgune.

Zaldibian, Larraitza bidean, Olaeta auzoan, lehengo teilera zaharrean, teilen edukiontzia irudikatzen duen eraikin laranja ikus daiteke. Goizane du izena eraikinak. Alegia, Goierri Zaldibiako Nekazal Eremua edo Goierriko Zerbitzu Anitzen Nekazal Eremua.

Baina beste esanahi bat ere badu Goizane hitzak: sortu berria, goiztiarra, proiektu pilotua.

Aintzidaria da Zaldibian egin eta osatutako nekazal eremua edo agroaldea. Goierriko landa eta lehen



Erabilera publikoa eta pribatua

Eraikina bi erabilera esparrutan banatzen da. Batetik, alde publikoa dauka. Bertan Kixkurgune agrodenda eta taberna, areto nagusia, auditorioa (60-100 lagunentzako) eta bi bilera gela (16-20 lagunentzako) daude. Bestetik, alde pribatua dago: 6 bulego (50 m² ingurukoak), 5 biltegi edo eraldaketa gune edo erabilera anitzeko espazioak. "Bertako produktuen eraldaketara eta ontziratzen bideratuta izan daitezke... beti ere nekazaritzarekin lotutakoak", dio Manex Aranburuk. Eraikin osoan, instalakuntza ahalik eta egokienak jarri dira: telekomunikazio, altzari eta logistika ekipamendu eguneratuarekin prestatuta dago Goizane.

Abian: enpresa laborategia

Abian izena jarri dioten bulegoa ere badago Goizanen. "Enpresa laborategi bat izan nahi du. Abian-ek bilatzen du, martxan dauden enpresei, gurekin bat eginez, nola eman diozeiokegun bultzada bat guzti honi ikusi eta aztertzea", zehaztu du Aranburuk.

Enpresa, erakunde eta elkarte ezberdinak

Dagoeneko erakunde edo elkarte batzuk hartu dute lekua Goizanen. Goimen, Gipuzkoako Erlezain Elkartea, Txerrizaleok elkarte, Erro eta Delifunart daude.



ibaiondo

altzariak

- barne diseinua
- dekorazioa
- sukaldeak
- proiektuak

Katea, 5 - Antzizar auzoa

BEASAIN

tel.: 943 16 40 40

faxa: 943 16 47 47

mug.: 639 631 640

www.mueblesibaiondo.com

xetai

diseinuzko altzari eta sukaldeak



www.xetai.net

nafarroa etorbidea 1, solairuartera - 20200 beasain

sektorea garatzeko apustua da. Gipuzkoako nekazaritza ekimen desberdinak sustatzea eta sendotzea da helburua, beste sektore ekonomikoekin elkar uztartuaz. Horretarako oinarrizko logistika, ekonomia eta kudeaketarako baldintzak errazten ditu Goizanak. Goimenen ardura-pean dago bere kudeaketa.

“Nekazaritzaren diagnostikoan ikusten zen, nekazaritzak ez zuela irudi garaikide bat, ez zituela industriari zuzentzen zaion bestelako prestakuntza batzuk. Goizanak hori guztia eskaintzen du. Adibidez, beste sektore batzuetan ohikoak diren inkubategia, bulegoak, hasi berriak diren enpresei bultzada bat emateko azpiegiturarik ez dago nekazaritzarako...”, dio Manex Aranburu, Goimeneko teknikariak.

Elkarlana

Dena den, azpiegitura baino gehiago eskaintzen du Goizanak. “Krisi garaian ikusten genuen, lehen sektorean, bakoitza bere kabuz ari zela nola edo hala bereari eusten edo erantzuten, eta asko eta

hainbat inbertsio gu jartzeko prest gaude eta horrekin batera bertan gaudenon aholkularitza”, gaineratu du Aranburuk.

Jarrera aktiboa

Estrategia intrasektoriala da Goizaneren ildoetarikoa bat. Alegia, nekazaritza sektorearen barruko lankidetzak. “Hona datorrenari, zenbait ezaugarri aktibo eskatzen dizkiogu. Ez dadila izan elkarrekin bat, 20 urtean, bere horretan, ezer ere aldatu gabe dagoena. Aurrera begira, itxaropenarekin, proiektzioekin, jarrera aktibo batekin, berritzeko gogoarekin dagoena izatea. Horrekin batera, bertaratzen direnei, batak bestearekiko errespetu eta eskuzabaltasuna eskatzen zaie. Baten esperientzia transmititzea, elkarlan baterako irekitasuna azaltzea. Hori da estrategia intrasektorialarekin planteatzen gurena”.

Sektore ezberdinen arteko harreman

Bigarren estrategia bat ere badu Goizanak: estrategia intersektoriala, sektore ezber-

“Nekazaritzaren diagnostikoan ikusten zen, nekazaritzak ez zuela irudi garaikide bat, ez zituela industriari zuzentzen zaion bestelako prestakuntza batzuk. Goizanak hori guztia eskaintzen du.”.

asko antzeko saiakerak egiten ari zirela. Orduan, planteatzen zen, eraikin baten barruan, Goizanen, bertara etortzen ziren eta premia zuten lehen sektoreko zenbait entitate, elkarte, kooperatiba, enpresa... elkarlan bat egitea eta amankomunak zituzten gabeziak, amankomunean lantzea edo aurre egitea, estrategia bakar baten barruan. Azpiegitura guk jarri dugu, zenbait proiektuetarako

dinen artekoa. Turismoa eta Industriarekin adibidez. “Nekazaritzak bere betiko jardueratik sortzen dituen hainbat gizarte onura (paisaia berdea, paisaia orekatsua, ingurune jasagarri orekatsua) askok eta askok erabiltzen dute, gehienbat beste sektore ekonomikoek: hala nola, turismoak edo eta industriak. Ikusi besterik ez dago, edozein katalogotarako beraien produktuak atera behar dituz-

Kixkurgune: Goierriko produktuak dastatu eta erosteko

Goizane eraikinaren barruan, Kixkurgune dago: denda eta taberna. Ezaugarri bereziak dituen gunea da Kixkurgune: Goierriko nekazariak beraien produktuak bertara eraman eta saldu egiten dituzte, beraiek erabakitako prezioan. Alegia, tartean inongo bitartekaririk gabe. Ekoizleentzat, salmenta zuzenerako aukera berria da Kixkurgune. Erosleentzat, berriz, bertako kalitatezko produktuak prezio onean erosteko aukera. Goierriko Nekazaritza Kooperatibak eskaintzen duen zerbitzu bat da. “Langileak berak jartzen ditu eta bertako produktoreen produktuak komertzializatzen ditu. Irabazi asmorik ez du bilatzen, azpiegitura hau mantentzea baizik. Baserrian bertan erositako prezioan erosiko dugu, inolako bitartekaririk ez dago”, dio Manex Aranburuk.

Goimeneko kideak esan digunez, “Kixkurre proiektuaren jarraipena da Kixkurgune. Kixkurrerekin, Goierri zaindu nahi dugu. Landa mundua, nekazaritza, bizi-bizirik eta iraunkor izaten jarrai dezaten lan egiten dugu, garai berrietara egokitu nahian, bizimodu, nortasun eta tradizio bat bermatzera begira, etengabeko lehian. Produktu ezberdinak hartzen ditu Kixkurrek eta bakoitzak bere logotipoa du. Ardiesnea, fruta, mermeladak, ezti, ogia, barazkiak... Baserrietan saltzen den gai nagusiaren arabera, bide seinaleak jarri ditugu bidegurutzeetan. Honela, zuzenean joan zaitezke bertara erostera. Orain aukera bat gehiago dago erosketarako: Kixkurgune”. www.kixkurre.com web orria ere beste aukera bat da Kixkurre produktuak eta ekoizleen informazio zabalago bat aurkitzeko besteak beste.

Kixkurgunerekin, “bertako produktuak gizartaratzen ditugu, gure nortasuna lantzen dugu, kontsumitzailea informatzen dugu gure kulturaz, gure jatorriaz, produktu bakoitzaren atzetik dauden nondik norakoaz, hau da, zenbait kostatzen den ereitea, noiz ereiten den... nolabaiteko formazioa ematen da. Eskualdeko identitatea lantzen ari gara. Beraz, nahi duguna da, eskualdean errotuta daudela esaten duten enpresa horiek gure-

“Bertako produktuak gizartaratzen ditugu, gure nortasuna lantzen dugu, kontsumitzailea informatzen dugu gure kulturaz, gure jatorriaz, produktu bakoitzaren atzetik dauden nondik norakoaz, hau da, zenbait kostatzen den ereitea, noiz ereiten den...”.

tuak ezagutu, teko gunea

kin bat egitea. Adibide gisa: bilera gelak, auditorioa erabiliz, gure produktuak erabiltzea opari gisa, lunchetan bertako produktuak erabiltzea... Elkarlanean garatu ditzagula hainbat proiektu”, gaineratu du Aranburuk. “Turismoarekin eta Goiturrekin lanean ari gara, beraien foiletoetan museoen eta informazio bulegoen informazioa jartzen duten bezala, baserriak ere seinalizatu ditzatela, eskaintza bat gehiago bezala. Norbaitek baserri batera joan nahi ez badu, Kixkurgunera etor daiteke. Kixkurgunek, baserri guzti horien egoitza izan nahi du. Baserri ezberdinetara joan beharrean, Kixkurgunen aurkitu ditzakezu denak”

Denda

Goierriko produktuz hornituta dago Kixkurgune: Aralarko gazta, ahuntz gazta, eztiak, mermeladak, haragia, oilaskoak, sagardoa, txakolina, barazkiak, fruta... “Eta horien ondoan, produktu ekologikoen linea oso bat du dendak, ahalik eta osatuena: arroz integrala, ogi ekologikoa, ahuntz gazta ekologikoak, olioia, ardoa...”. Goierriaz kanpoko produktuak dira dendako batzuk. “Goierriko produktuak, Goierriko produktu ekologikoak eta

Goierriin ekoizten ez diren hainbat produktu ekologiko. Ekologikoak ez diren beste hainbat produktu ere badaude. Beste kooperatiba batzuekin harremanak egiten ari gara. Baserriko eskaintza osatzen dugu. Guk ekoizten ez dugunez, gertukoak ekartzen dituzte”.

Jakiez gain, Goierriko artisautza ere bai: Pott, Koki Fernandez eta Jabier Arrietaren lanak aurki daitezke bertan.

Aipagarria da Aralarko gaztak bakarrik saltzen dituztela Kixkurgunen. Horren arrazoiak azaldu du Manex Aranburuk: “Agrodendari ematen diogun beste kutsu bat, Aralar da. Ikusten genuen, mendiko artzantzak bultzada bat behar zuela. Idiazabal Gaztaren eta Artisau gaztaren barruan, berezitasun bat ematen ziola. Beste produktu bat da mendian egiten den gazta. Horren lanketan gabilta. Ezin ditugunez gazta guztiak jarri salgai, Aralarra etortzen diren artzainen gaztak jarri ditugu salgai”.

Taberna

Goierriko nekazarien produktuak sustatzeko azpiegitura eskaintzen du Kixkurgunek. Izan ere, salmentaz eta dastaketaz gain, tabernan erabiltzen diren produktuak, dendan daudenak dira. Kroketak adibidez, Iztuetako esnearekin, Euskaberreko arrautzekin eta Txerrizaleok Elkarteko urdaiazpikoarekin egiten dituzte.

Asteazken zehar, eguneko platera eskaintzen dute Kixkurgunen. Asteburuetan, plater konbinatuak. Asteazketan, goizeko 10,30etatik iluntzeko 8ak arte dago irekita Kixkurgune. Asteburuetan, ordu bete beranduago irekiko da. Aurrez eskatzen bada, gauean ere emango dira afariak. Cateringak eta lunchak prestatzen dituzte Kixkurgunen bertan ospatzen direneki-taldi ezberdinetarako.



*Karmele Amundarain, Maddi Otegi eta Kontxi Arruabarrena
dira Kixkurguneko langileak.
Goizeko 10,30etik iluntzeko 8etara dago irekita taberna-denda.*



Goimenek kudeatuko du Goizane. Argazkian, Manex Aranburu, Jose Manuel Zubizarreta eta Anaïs Tolosa. Azken hau izango da, Goizane zentroaren barrera eta kudeaketa arduraduna.

tenean, nora eramaten dituzten beraien produktuak. Horrek koste bat dauka baina ez dator sorburura. Hau da, baserriarrak eta abeltzainak izan badira paisaia horren eragile nagusiak, ez dute nolabaiteko onura hori zuzenean jasotzen”, dio Aranburuk.

Baserriak sortzen dituen onuren aldarrikapena

Hori dela eta Goizanek, alda-

rrikapen puntu hori eduki nahi du: baserriak sortzen dituen gizarte onuraren aldarrikapena. “Jauralaritzatik eta Foru Aldunditik lortu ditugun dirulaguntza hauek, nekazaritzara bideratuta daudenak ere, elkarbanatu nahi ditugu beste sektore ekonomikoekin, beti ere, beste sektore ekonomiko horiek gurekin bat egiten duten neurrian”, gaineratu du Goimeneko teknikariak.

Goizanek horretarako aukera ematen du. “Azpiegitura hauek ere sektore ezberdinei eskaini nahi dizkiegu, bide batez, beraiek, gurekin, elkarlana egingo badute. Industria mundura gerturatzeko eta lantzen ari gara”.

Aldi berean, estrategia intersektorial horretan, “sektore ezberdinen artean sentikortze lana egitea ere nahi da. Adibidez, turismoan, Parke

Naturalek duten ikuspegi kultural hori, gizakiaren eragina, nekazaritzatik zein izan diren eta diren azaltzea”.

Denda-museoa

Turismo arloarekin lotuta, Goizanerren barruan dagoen Kixkurgune dendak Goierri, ekarpen handia egiten diola uste du Aranburuk: “Kixkurgunen bertako produktuak salgai edukitzeaz gain, erakusketa bat ere egi-

Goi

Goierritarra aldizkaria

Egin harpidedun

902-82 02 01

Astegunetan 08:30-20:30
Larunbatetan: 09:00-13:00

harpidetza@hitza.info

Urbialde plaza, 7 behea
Beasain

PSIKOLOGI KLINIKOA

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Eikargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

Olagi

Sagardotegia
Jatetxea

© 943 88 77 26 ALTZAGA

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko meua

SILVIA MIRAS CASASAYAS

ODONTOLOGOA

KOL. Zka: 649 RPS: 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87

SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

ten da, gure baserrietan zer sortzen den ikusteko. Erdi museo, erdi denda bilakatzen da. Informazioa eta formazioa eskaintzen dira. Adibidez, gazta dastaketa egin daiteke, azalpenak jasoz, beste hainbat produktuekin bezala: ezti, urdaiazpikoa...”.

Aintzindaria eta garaikidea

Nekazaritzari eskainitako horrelako eremurik ez dago inguruan. “Agroalde kontzeptua, beste ikuspegi batekin erabili izan da. Eraikina baino gehiago, negutegiak izan dira, San Markosen adibidez. Zaborrak eta hondakinak botatzeko erabili eta behin zigilatuta gero, bertako gasak

izan zenari. Teila edukiontzia, teilak biltzen dituen edukiontzi bat gogorarazten du eraikinak. Laranja horrengatik margotu da. Toponomiari ere keinu bat egiten dio. Aldi berean, baserriaren irudia puskatzera joan den arkitektura da. Pentsa liteke, berezkoa izan zitekeela, baserri bat bezala egitea: bolumen bakar bat, teilatua bi uretara bideratuta, teilatu gorria, txuria, leiho estuekin... justu aurkakoa egin dugu. Leiho asko, oso zabalak, argi asko sartzen den gunea, ataria oso zabala, nekazaritzak, datozenak, beso zabalik hartuko balitu bezala. Teilaturik ez dauka,

